

## 9. Kostuen egitura

*Park Phone* kostuak murrizten saiatuko da, baina beti kalitatea murriztu gabe.

Gure enpresaren kostuak, bi taldeetan banatzen dira, kostu finkoetan eta aldakorretan.

Kostu finkoei dagokienez bulegoaren alokairua eta instalazioena izango da (1850), patentea eta gure soldatekin batera. Kostu finkoen estimazioa 7000-koa izango zen. Maileguak agian erabiliko ditugunez, hauen interesak kostu finkotzat hartuko ditugu.

Kostu aldakorreki dagokienez bidaien kostuak, aplikazioaren konponketak eta gure zerbitzuak aurrera eramateko laguntzen diguten enpresei ordaintzea, beraien zerbitzuengatik, ordainketa hau ekoizpen kantitatearen arabera izango da.

Kostuak hilabetero aldatuko dira, baina kostuak gora egin ahala gure irabaziak gora egitea espero dugu. Modu honetan lan egiten dugun bitartean oso zaila izango da galerak izatea.

*Park Phone*, hasieran, inbertsio handia beharko du aplikazioa sortzeko eta enpresa batean inbertitzeko, aparkalekuetan jarriko ditugun gailuak sor diezazkiguten. Eta publizitatean ere inbertitu beharko dugu, gure proiektua ezagutarazteko.